

1.2. Elkarbizitza Plana egitean jarraitutako prozesuaren deskribapena

Plan hau egiteko ekimena zuzendaritza-taldean sortu zen 2012-2013 ikasturtean, ikasgelako elkarbizitza-arazoei heltzeko irakasleek estilo desberdinak zituztelako. Arazo hauei aurre egiteko, Antolakuntza eta Jarduera Araudia edo Barne Araudia baino esparru zabalago batean koherentziaz ekiteko beharra gailendu zitzaion arauen berrikuspen soilari, eta asmo handiko proiektu bihurtu zen. Zuzendaria izan zen hasieratik proiektuaren buru, eta batzorde bat izendatu zuen prozesuaren plangintza egin eta dinamizatzeko.

Sei aldi edo garai bereizten ditugu: sentsibilizazioa, diagnostia, plangintza, plana idaztea, onespina eta zabalkundea.

a) Sentsibilizazioa. Elkarbizitza eta hobekuntza aukeren gogoeta egite aldera, funtsezko zenbait alderdiri heldu zitzaion, hala nola, elkarbizitza-kontzeptuari; diziplinari; arazoei; familia eta inguruarekiko harremanari; hezkuntza emozionalari; enpatiarri.

Aldi hau 2013ko iraila-urrian burutu zen. Lau prestakuntza-ordu egin ziren; world-kafe teknika erabili zen irakasle eta ikasleekin; tutoretza-orduetan bideoak jarri ziren; solasaldi bat antolatu zen gurasoentzat, eta bukatzeko, bi bilera egin ziren irakasleak ez diren langileekin eta jangelako langileekin.

b) Diagnostia. Elkarbizitzaren azterketa sakonari heldu zitzaion. Zer gertatzen den, zergatik, zer hobetu behar dugun eta zer lortu nahi dugun aztertu zen.

2013ko urriaren amaieratik abendura arte zenbait inkesta egin ziren eta emaitzak argitaratu ziren ikastetxeko webgunean.

c) Plangintza. Elkarbizitza-eredua finkatzeko, plan honen oinarri diren printzipioak antolatuzko, helburuak eta oinarritzko jarduera-ildoak aukeratzeko sailkako bilerak antolatu ziren, ikastetxeko webgunean foro bat eratu zen, tutoretza-saioretan aztertu zen.

Aldi honetan funtsezkoa izan zen material et gidioen prestaketan, proposamenak egiten eta iradokizunak egiten batzordeak burututako lana.

Aldi honek 2013ko urtarriletik martxora bitartean iraun zuen.

d) Plana idaztea. Batzordeko bi lagun arduratu ziren dokumentuaren idazketaz. Aurretik zirriborroa webgunean jarri zen azken orduko iradokizunak eta ekarpenak egiteko.

e) Planaren onespina. Ikasgela bakoitzeko ordezkariak bere taldeari aurkeztu zion plana, eta onarpina bozkatu zuten. Zuzendariaren lana izan zen klaustroari (uuuu/hh/ee) eta OOG edo Eskola Kontseiluari aurkeztea (uuuu/hh/ee).

f) Zabalkundea. Hezkuntza-komunitate osoari eman zitzaion planaren berri. Denei eskatu zitzaion proposaturiko helburuak lortzeko konpromisoa. Hori maiatzaren amaieran ospatzen den kulturartekotasunaren festaren inguruan gauzatu zen (uuuu/hh/ee).